

**KREDITU ERAKUNDEETAKO GORDAILUEN GAINEKO ZERGAREN ARAUA**  
**2/2014 ZERGA PREMIAZKO ARAUGINTZAKO DEKRETUA, UZTAILAREN 15EKOA**  
**(ALHAO, 83. zk., 14-7-23koa)**

(Arabako Biltzar Nagusiek baliozkotua uztailaren 28ko 31/2014 Foru Arauaren bidez;  
ALHAO, 89. zk., 14-8-8koa)

Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak Ekonomia Ituna aldatzea erabaki zuen, besteak beste, kreditu erakundeetako gordailuen gaineko zerga ituntzeko. Beranduago, apirilaren 21eko 7/2014 Legeak Ekonomia Itunaren aldaketa onartu zuen.

Ituntze hori, halaber, Arabako Biltzar Nagusiek berretsi dute, otsailaren 26ko 4/2014 Foru Araua, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren lehenengo erabakia berrestekoa, dela medio.

Ekonomia Itunaren 23 ter artikulua arabera, kreditu erakundeetako gordailuen gaineko zerga itundutako tributu bat da eta Estatuak unean-unean ezartzen dituen arau substantibo eta formalen bidez arautuko da. Lurralde historikoetako erakunde eskudunek zerga horren karga tasak ezarri ahal izango dituzte, lurralde erkidean indarrean dauden muga eta baldintzen barruan.

Aurretik esandakoaren arabera, araugintzako dekretu honen bidez arautu egiten da kreditu erakundeetako gordailuen gaineko zerga, eta beharrezkoa da hura ahalik eta lasterren onartzea, zergak 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera baititu ondorioak.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena aztertu da.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergenak, 8. artikuluan, eta abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege araubidearenak, Arabako Foru Aldundiari emandako eskumenez baliatuz, premia arrazoiengatik hauxe

**1. artikulua. Zergaren izaera eta xedea.**

Kreditu erakundeetako gordailuen gaineko zerga zuzeneko tributu bat da, eta kreditu erakundeetan eratutako gordailuak kargatzen ditu, zerga premiazko araugintzako dekretu honetan (hemendik aurrera, araugintzako dekretua) aurreikusten diren modu eta baldintzen arabera.

**2. artikulua. Arautegi aplikagarria.**

1. Ekonomia Itunaren 23 ter artikuluan xedatutakoaren esparruan, araugintzako dekretu honetan eta berau garatzen duten xedapenetan ezarritakoarekin bat etorri eskatuko da zerga hau.

2. Araugintzako dekretu honetan ezarritakoak ez du ezertan eragotziko Espainiako barne antolamenduaren osagai bihurtu diren nazioarteko itunetan eta hitzarmenetan xedatutakoa.

### **3. artikulua. (2) Zergaren ordainarazpena.**

1. Kreditu entitateetako gordailuen gaineko zerga Arabako Foru Aldundiak ordainaraziko du kasu honetan: entitatearen egoitza nagusia, sukurtsalak edo bulegoak, non hirugarrenen funtsak gordetzen diren, Arabako Lurralde Historikoan daudenean.

Hala ere, mantentze lanak bertaratu gabe egiten diren merkaturatze sistemetako funtsen gaineko kargak eta lurraldeka sailkatu ezin diren funtsen gainekoak Arabako Foru Aldundiak ordainaraziko ditu lurraldearen arabera partaidetzaren arabera dagokion proportzioa aplikatuz.

2. Zergaren konturako ordainketak Arabako Foru Aldundiak eskatuko ditu aurreko paragrafoan azaltzen den irizpidea aplikatuz.

### **4. artikulua. Zerga gaia.**

Honako hau da zerga gaia: araugintzako dekretu honen 7. artikuluan adierazitako zergadunek hirugarrenen –berdin du zein den beren izaera juridikoa– funtsak edukitzea, baldin eta zergadunak funts horiek itzultzera behartuta badaude, Espainiako lurraldetik kanpoko sukurtsaletan edukitako funtsak izan ezik.

### **5. artikulua. Salbuespenak.**

Zergatik salbuetsita egongo dira honako hauek:

1. Espainiako Bankua eta moneta erregulatzeko agintaritzak.
2. Europako Inbertsio Bankua.
3. Europako Banku Zentrala.
4. Kreditu Ofizialeko Institutua.

### **6. artikulua. Zergaldia eta sortzapena. (1)**

Zergaldia urte naturala izango da.

Hala ere, jarduera Espainiako lurraldean hasten bada, honako hau izango da zergaldia: jarduera hasten den egunetik urte naturala amaitzen den egunera arteko tarte.

Dena den, zergaldia zergadunak jarduera Espainiako lurraldean amaitzen duenean bukatuko da.

Zergaldiaren azken egunean sortuko da zerga.

## **7. artikulua. Zergadunak.**

Honako hauek dira zergadunak:

- a) Ekainaren 28ko 1298/1986 Legegintzako Errege Dekretuak, kreditu erakundeen alorreko indarreko zuzenbidea Europako erkidegoetakora egokitzeari buruzkoak, 1. artikuluan definitutako kreditu erakundeak.
- b) Atzerriko kreditu erakundeen Espainiako lurraldeko sukurtsalak.

## **8. artikulua. Zerga oinarria. (1)**

Honako hau da zerga oinarria: kreditu erakundeen isilpeko balantzeko pasiboaren «Bezeroaren gordailuak» 4. partidari dagokion –banakako finantza egoeren barnean daude gordailuok– zergaldiaren hiruhileko natural bakoitzaren amaierako saldoaren batez besteko aritmetikoa egitetik ateratzen den zenbatekoa.

Horren ondorioetarako, amaierako saldoari 4.1.5, 4.2.5, 4.3.2 eta 4.4.5. partidetan sartutako “Balorzio doikuntzetako” zenbatekoak kenduko zaizkio.

Paragrafo honetan adierazitako parametroak bat datoz abenduaren 22ko 4/2004 Zirkularraren II. tituluan eta IV. eranskinean definitutakoekin –Espainiako Bankuak kreditu erakundeei egindako zirkularra, finantza informazio publikoaren eta isilpekoaren arauari eta finantza egoeren ereduari buruzkoa–, bai eta hura ordeztzen duen arauarekin ere.

Erakunde edo sukurtsal bat abenduaren 31 baino lehen desagertu edo haren jarduera Espainiako lurraldean amaitu eta zerga honen pean dauden gordailuak beste zergadun bati eskualdatzen dizkionean, gordailuen eskualdatzea kontabilitate ondorioetarako eragiketaren urteko urtarrilaren 1ean itundu baldin bada, gordailu horiek eskuratzailerak bakarrik eduki beharko ditu kontuan, zerga honi dagokionez.

## **9. artikulua. Zerga kuota. (1)**

Kuota osoa lortzeko, zerga oinarriari ehuneko 0,03ko karga tasa aplikatuko zaio.

Kuota diferentziala lortzeko, kuota osoari egindako konturako ordainketa kenduko zaio.

## **10. artikulua. Autolikidazioa. (1)**

Zergadunek autolikidazioa aurkeztu beharko dute zergaldiaren hurrengo urteko uztailean, Arabako Foru Aldundiaren Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak zehazten duen lekuan eta moduan.

## **11. artikulua. Konturako ordainketa egiteko betebeharra. (1)**

Zergadunek konturako ordainketaren autolikidazioa, uneko zergaldiari dagokiona, aurkeztu beharko dute ekitaldi bakoitzeko uztailean, zergaldi horretako indarreko karga tasa aurreko zergaldiko zerga oinarriari aplikatuz ateratako kuotaren ehuneko 50eko zenbatekoagatik. Nolanahi ere, kuota osoa zero eurokoa bada, ez da autolikidazioa aurkeztu beharrik izango.

Aurretik esandakoaren kalterik gabe, 2014ko zergaldiari dagokion konturako ordainketa 2014ko abenduan aurkeztu beharko da, eta haren zenbatekoa kopuru honen ehuneko 50 izango da: zergadunaren 2013ko banakako finantza egoerei buruz araugintzako dekretu honen 8. artikuluan jasotzen diren erregeletatik eratorritako zerga oinarriari karga tasa aplikatuta ateratzen den emaitza.

## **12. artikulua. Arau hausteak eta zehapenak.**

Zerga honekin lotutako arau hausteak otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergenak, eta Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 18ko 97/2008 Foru Dekretuak, zerga arau hauste eta zehapenen arautegia onartzen duenak, aurreikusitakoarekin bat etorritik sailkatu eta zehatuko dira.

## **XEDAPEN IRAGANKORRA**

### **Araubide iragankorra 2013ko urtarrilaren 1etik 2013ko abenduaren 31ra arteko aldirako, bi egun horiek barne.**

2013ko urtarrilaren 1etik 2013ko abenduaren 31ra arteko aldirako, bi egun horiek barne. araugintzako dekretu honetan xedatutakoa aplikatuko da, ondoren adierazten diren artikulua izan ezik, haien testua ondoko hau izango baita:

6. artikulua. Zergaldia eta sortzapena.

Zergaldia urte naturala izango da.

Hala ere, jarduera Espainiako lurraldean hasten bada, honako hau izango da zergaldia: jarduera hasten den egunetik urte naturala amaitzen den egunera arteko tartea.

Dena den, zergaldia zergadunak jarduera Espainiako lurraldean amaitzen duenean bukatuko da.

Zergaldiaren azken egunean sortuko da zerga.

8. artikulua. Zerga oinarria.

Honako hau da zerga oinarria: kreditu erakundearen isilpeko balantzeko pasiboaren «Bezeroaren gordailuak» 4. partidari dagokion –banakako finantza egoeren barnean daude gordailuok– zergaldiaren hiruhileko natural bakoitzaren amaierako saldoaren batez besteko aritmetikoa egitetik ateratzen den zenbatekoa.

Horren ondorioetarako, amaierako saldoari 4.1.5, 4.2.5, 4.3.2 eta 4.4.5. partidetan sartutako “Balorazio doikuntzetako” zenbatekoak kenduko zaizkio.

Paragrafo honetan adierazitako parametroak bat datoz abenduaren 22ko 4/2004 Zirkularraren II. tituluan eta IV. eranskinean definitutakoekin –Espainiako Bankuak kreditu erakundeei egindako zirkularra, finantza informazio publikoaren eta isilpekoaren arauari eta finantza egoeren ereduari buruzkoa–, bai eta hura ordeztzen duen arauarekin ere.

9. artikulua. Zerga kuota.

Kuota osoa lortzeko, zerga oinarriari ehuneko 0ko karga tasa aplikatuko zaio.

Kuota diferentziala lortzeko, kuota osoari egindako konturako ordainketa kenduko zaio.

10. artikulua. Autolikidazioa.

Zergadunek autolikidazioa aurkeztu beharko dute zergaldiaren hurrengo urteko uztailan, Arabako Foru Aldundiaren Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak zehazten duen lekuan eta moduan. Nolanahi ere, kuota osoa zero eurokoa bada, ez da autolikidazioa aurkeztu beharrik izango.

11. artikulua. Konturako ordainketa egiteko betebeharra.

Zergadunek konturako ordainketaren autolikidazioa, uneko zergaldiari dagokiona, aurkeztu beharko dute ekitaldi bakoitzeko uztailan, zergaldi horretako indarreko karga tasa aurreko zergaldiko zerga oinarriari aplikatetik ateratako kuotaren ehuneko 50eko zenbatekoagatik. Nolanahi ere, kuota osoa zero eurokoa bada, ez da autolikidazioa aurkeztu beharrik izango.

## **AZKEN XEDAPENAK**

### **Lehenengoa. Indarrean jartzea.**

Araugintzako dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak, xedapen iragankorrean 2013ko urtarrilaren 1etik 2013ko abenduaren 31ra arteko aldirako (bi egun horiek barne) ezarritakoaren kalterik gabe.

### **Bigarrena. Gaitzea.**

Arabako Foru Aldundia gaitu egiten da xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan.

### **Hirugarrena. Biltzar Nagusietara bidaltzea.**

Zerga premiazko araugintzako dekretu hau Arabako Biltzar Nagusietara bidaliko da, indarrean dagoen arautegian ezarritakoarekin bat etorritik baliozkotu edo baliogabetu dezaten.

## **OHARRAK**

- (1) Ikusi uztailaren 15eko 2/2014 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuko xedapen iragankorra.  
(ALHAO, 83. zk., 14-7-23koa).
- (2) 3/2018 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, urriaren 23koa.  
(ALHAO, 125. zk., 18-10-31koa).